


ELORRIO: FRONTEA ETA BORROKA



Map data: ©2026 Google / Badihardugu Euskara Elkartea

Gerra Zibilean tropa ezberdinek Elorrio eta inguruak nola hartu zituzten eta hau herritarren artean nola bizi izan zen batu nahi izan dugu ibilbide honetan.

Besteak beste, tropak non biltzen ziren, salatariak non zeuden, lehenengo bonbak non jausi ziren edota milizianoen kuartelari lotutako kontuak, lekukoek beraiek kontatuta.

Gerrako Ahotsak proiektuan jasotako ahozko testigantzetan oinarrituta.



testigantza eta
informazio gehiago
online mapan



Badihardugu
Deba Ibarreko Euskara Alkartia

ahotsak.eus
Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputazio Nagusia
Giza Eskubideen eta Oinarrizko
Historiaren Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Derechos Humanos
y Memoria Histórica

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1

DIANA JO ETA TROPAK FORMATZEN

Lekukoa: Maria Igarza

Elizaren arkupetik jotzen zuten diana. Tropak plazan formatu eta mendira joaten ziren. Orduan ikasi zuen "Eusko Gudariak" kantua, baina ez zitzairen burutik pasatu ere egin frankistak sartu zirenean kantatzerik.



5

UHP-KO MILIZIANOEN KUARTELA, SEMINARIOAN

Lekukoa: Iñaki Gallastegi

Gerra hasi zenean, UHPko (Unión de Hermanos Proletarios. Milizianoak) guda-taldearen kuartela jarri zen fraideen eskolan. Gipuzkorrak omen ziren gehienak. Iheslari talde bat hartu zuten etxean. Gero, gerra komiteak etxean taberna ipintzera behartu zituen.



2

TXIBATOAK GERRAOSTEAN

Lekukoa: Maria Igarza

Gerraostean beti txibatoren bat egoten zen Elorrion. Parra tabernan kontuz ibili behar zen esaten zenarekin.



6

ZENITAKO NESKATILA BAT BONBAK HILDA

Lekukoa: Iñaki Gallastegi

Arrasateko Garagartzatik botatako kanoikadak neska bat hil zuen auzoan. Beraien etxea ez zen kaltetu, mendi tontor batek babesten zuelako.



3

LEHENENGO BONBAK

Lekukoa: Iñaki Gallastegi

Lehenengo bonba plazatik 100 metrora jausi zen. Geroago, egun batean bi bonbardaketa egon ziren: bata goizean eta bestea arratsaldean. Hainbat hildako izan zen. Fonda la Paz txikituta geratu zen.



GAZETATIK HEGAZKINAK PASATZEN ZIRENEAN

Lekukoak: Felisa eta Frantziska Arietaleanizbeaskoa

Euren etxe ondoan erori zen bonba bat eta pertsona bat hil zuen. "Abioi Baltza" k bonbardatzen zuen. Berrion antiaereoak zeuden eta abioiak zetozenen babeslekura joaten ziren.



4

BI ALDETATIK SARTU ZIREN NAZIONALAK

Lekukoak: Felisa eta Frantziska Arietaleanizbeaskoa

Elorrion eta Elgetara bateratsu sartu ziren francozaleak. Gazetara heldu ziren moroak argalak eta arinak ziren. Hurrengo egunean, arrosarioan zeudela itzuli zituzten gizonak.



testigantzak entzun

